# Denbora-

## 1 Aurkitu irudian

Maitanek liburua zabaldu orduko, hainbat letrak ihes egin dute. Hiru hizki, gainera, bikoteka irten dira. Zein dira bi aldiz dauden hiru hizkiak?






1. gorria 2. urdina 3. horia 4. orlegia

## 3 Margotu eta asmatu

Gaur Nagoreren urtebetetzea dela eta, lagunak zer oparitu ez zekitela ibili dira. Azkenean erosi diote oparia. Zer? Hutsuneak egoki margotuta ikusiko duzu.

## 2 Ezkutuko hitza

Musika munduan jantzita al zaude? Hizkien nahasmen honetan hainbat euskal kantariren abizenak daude ezkutatuak. Ea asmatzen dituzun!!












# -pasak

## 4 Hitz gurutzatuak

- Txindoki
- Anboto
- Oiz
- Gorbea

Euskal Herriko zenbat menditan izan zara? Hemen lauren izenak dituzu.

Kokatu mendi bakoitza dagokion hutsunean.




## 5 Bikiak

Unaxek suge bat erosi nahi du. Dendara joan dira, eta hauexek erakutsi dizkiote.

Multzo horretako bi, ordea, berdin-berdinak dira.







## Limoi kontuak

Esaldiak sinplea dirudien arren, azkar esatean gauzak korapilatu egiten dira. Arreta ipintzea eta ongi ahoskatzea dira joko honen sekretuak



**1** Jokoan arituko diren jokalari guztiak bilduta daudenean, bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Bat zenbakia duen jokalariak hasiko du jokoa, eta ahalik eta azkarrena esan beharko du esaldi hau: «Limoi bat eta limoi erdi batetik, lau limoi eta limoi erdira». Jokalariak berak aukeratuko du zein jokalariren txanda izango den. Horretarako, nahi duen zenbakia aukeratuko du esaldia amaitzeko.

**2** Kasu honetan, «lau limoi» esan duenez, lau zenbakia duen jokalariak hartuko du txanda, eta esaldi hori esan beharko du, pixka bat aldatuta. Lehenengo, bere zenbakia esango du, eta, gero, beste jokalariren batena. Hauxe izan daiteke, esaterako, esaldia: «Lau limoi eta limoi erditik, hiru limoi eta limoi erdira». Jokalari bakoitzak bere txanda iristen denean bota beharko du esaldi hori.

**3** Jokalariren bati txanda eman eta erantzuten ez badu edo esaldia gaizki botatzen badu, kanporatua geratuko da. Kasu horretan, eskuinean duen jokalariak jarraituko du jokoa.

**4** Pixkanaka-pixkanaka, jokalariak hanka sartzen joango dira. Azkena geratzen den jokalaria izango da garaile.

Erantzunak: 1. G R Ñ 2.- Lete, Laboa, Lertxundi eta Mendibil. 3.- Liburu bat. 5.- a eta c